

# Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko apirilaren 21a / VI. urtea / 175. zenbakia



Fundazioaren egoitza, Garraldako Sastrezuria etxean.

ALBERTO BARANDIARAN

Joan den hilean onartu zituen Aezkoako Batzarre Nagusiak, ia ahobatez, inguruko egitasmo orokorraren lehen proiektuak, eta bideratzeko osatuko den fundazioaren oinarria. Askok arranditsu deitu zuten aurre-proiektua aurkeztu eta bi urtera antzeman dituzte aetzek lehen emaitza praktikoak, eta artzain eskola, hiltegi berri bat eta ardi-esnea ekoizteko zentroak eraikiko dira luze gabe inguruan.

## Pablo Mandazen Fundazioa Aezkoan

Bultzada honetan funtsezko garrantzia izan du Pablo Mandazenek, Venezuelan urte franko emanak dituen garraldarrak, berak sortutako La Salle Natur Zientzietako Fundazioaren babesa izango duelako proiektuak. Ekogarapenean aditua, fundazio honen helburua ez da Aezkoan bakarrik geldituko, Pirinio osoaren etorkizunaz arduratuko baita, eta jadanik erakunde askoren partaidetza ziurtatuta dago.

### Metropoli forala

FELIPE RIUS



### Lurra eta askatasuna

**M**undu honetan errealitate birtuala, diseinu industrial, merkatu finantzieroa eta preso gorbatadunak besterik ez dagoela dirudienean, irakasle itxura duen britaniar batek lozorrotik ateratzen gaitu ostiko batez eta horren urrun ez dagoen iraganera bidaiatuz betiko istorioa kontatzen digu, irabazleek beti ezkutatu nahi izan dituzten galtzailak erakusten dizkigu eta urte hauetan ezer gutxi aldatu dela ulertarazten digu. Ken Loach boxeolari bat da eta estomaguan jotzen du behin eta berriro pantailan ikusten ari garen langileak, langabetuak, milizianoak edo seme-alabak lapurtu dizkioten ama gu izan gintezkeela konturatzen garen arte. Eskatzen ez baditugu ere, beti bilatu ditugu lurra eta askatasuna. Broker-en eta Internet sarearen garaian batzuek pentsa dezakete guzti hori oso urrun geratzen dela, baina beren barnean begiratuko balute agian ohartuko lirateke haiek ere egun batean antzeko zerbait eskatu zutela beste izen batzuekin.

Memoria galtzen ari gara, Alzheimer gaisotasunak denok harapatu gaitu eta etorkizunerantz abiatu nahiago dute gehienek aurrerantzean inoiz galduko ez dutelakoan. Ez dakite aspaldian norbaitek madarikazio ikargarria bota zuela munduan eta memoria galtzen dutenek ez dutela inoiz irabazteko aukerarik izanen. Ez dut uste dena idatzirik dagoenik, baina atzera begiratu gero gauza asko aurki dezakegu, esate baterako lurrera erortzen ari den milizianoarekin antz handia dugula eta beharbada duela hirurogei urte egindako argazki bat gure etorkizuna iragaritzen ari zaigula. Berriz ere, Ken Loach-ek espejismotik ateratzen gaitu eta gizatasuna zer den azaltzen digu bi hitzez, lurra eta askatasuna. Honekin batera, historian zehar jarritako tranpak ere erakusten ditu eta guk badakigu erortzen segituko dugula, ez dugula erre-medioren. Herenegun miliziano-anarkistak eta troskistak izan ziren, atzo konstrukzioko langileak, gaur ama desahuziatua eta bihar guretako edozein pentsio fondo pribatu bat egiten ez badugu.

### IKASTAROAK

**Saloiko dantzak**, dantza folklorikoak, eskulanak, masaia, joga, argazkigintza, marrazketa eta pintura, jostura, kosmetika naturala, keramika eta autodefentsa ikastaroak antolatu ditu Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartek. Apuntatu nahi duenak Elkarteko egoitzara joan (Aldapa, 5) edo 21 25 26 telefonora dei dezake.

**Nazioarteko sukaldaritza**, postre naturalak, ingelera, antzerki teknikak, autoestima, autodefentsa eta abiltasun sozialak emakumeentzako ikastaroak antolatzen ditu datozen hilabetetarako Andrea zerbitzuak. Batzuk goizez eta beste batzuk arratsaldez, ordu-tegi zabalak daude. Apuntatzeko Andreara joan (Navarrería 15) edo 22 77 14 telefonora deitu.

**Makilaia** ikastaroa antolatu du datozen asteetarako Zizur Nagusiko Kultur Patronatoak. Apirilaren 25ean hasiko da eta 33 orduko ikastaroa izanen da. Astearte eta ostiral arratsaldetan emanen dute eta 16 lagunentzako plazak daude. Matrikula 2.000 pezetakoa da. Izena emateko Kultur Etxera joan behar da.

### ZINEMA

**Zinema Mexikarrari** buruako zikloaren barruan 'Las fuerzas vivas' izeneko pelikula eskainiko dute heldu den asteartean, apirilak 25. Nafar Ateneoak antolatuta, Iruñeko Olite zineman izanen da, arratsaldeko 8.00etan. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

'**La teta y la luna**' pelikula ikusgai izango da heldu den ostegunean, apirilak 27, Tafallako Español zineman. Kultur Patronatoak antolatuta, arratsaldeko zortzietan eta gaueko hamar t'erdietan izanen da. Sarrerak 200 pezetan salduko dituzte.

### BESTELAKOAK

'**Burning**' musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar larunbata, apirilak 22, Garesen. Gaueko 11.00etan hasita, sarrerak 1.500 pezetan salduko dituzte.

**Amaia Telletxea**, Ainhoa Agirreazaldegia, Xabier Silveira, Maialen Lujanbio, Iñigo Olaetxea eta Jon Maia bertsolariaren saioa izanen da bihar larunbata, hilak 22, Lesakan. Bortziritako Bertso Eskolaren Asteko ekitaldien barruan, Estitxu Arozena ariko da gaijairtzaile lanetan. Arratsaldeko zazpitan hasiko da.

'**Euskararen egoera aztertuz**' gaiari buruzko mintzaldia eskainiko du Herrantz Urtasun adituak bihar Jauntsaratsen. Basaburuko Kultur Hilabeteko ekitaldien barruan, arratsaldeko zortzietan hasiko da.

### NAFAR KRONIKA


ALBERTO BARANDIARAN

## Basahuntzak eta bidesariak

Haste-hastetik, Bi Ahizpetako pasabide horretatik hasi eta Azpirotzeraino heldu bitartean, ikusirik autobide zorionekoak teknikari gogaituei paratzen zizkien arazoak, autoak hortik pasatzea oso gustuko ez zuen norbait aske zebilela irudikatu dut beti. Arazo tekniko guztiak —Urritzako tunelak, Azpirozko harri solteak, Bi Ahizpetako pasabidea bera...— horren ondorio iruditu zaizkit.

Horien artean bitxiena, erakargarriena, Azpirozkoa izan da, beti. Basahuntzei eta guzti leporatu diete harri solteak, etengabe, malda behera errepidera jausi izana. Hasieran basahuntzen jabeak bilatu zituzten inguruko herrietan, eta azpirotzarrek ezkerreko begiekin begiratuko zieten, noski: «Basahuntzen jabeak!? Basajaun ez bada!». Gero saiatu ziren akabatzen, eta batzuk hil hil omen dituzte. Irrirako irudi aproposa da: teknikariek jazarrita, basahuntzak maldan gora, tiroak inguruan aditzen dituztela. Ez dakit zenbat harrapatuko zituzten, baina ez omen dira fido, azkenean sare metalikoa paratuko dutelako: 87 milioi pezeta.

Gipuzkoan ez omen dute antzeko arazorik izan, hangoa ez baita hemengo be-



zaín basa. Hala ere, bidesaria ez dute oraindik baztertu, alegia, Berastegira helduta nafarrek ordaindu egin beharko dugula hondartzara joategatik. Mehatxuak direla eta, bada garaia probintziakoei esateko: baina zeinek egin ditu

ahalegin handienak, zeinena da meritua? Bidesaria kobratuz gero, basahuntzak Plazaolatik harantza zabaltzeko proposamena egin beharko litzateke, naturaren kontra benetan borrokatzea zer den ikus dezaten.

### ASTEKO PERTSONAIK



**Javier del Castillo**  
Nafarroako Gobernuako sailburua

Javier del Castillo, UPNren sortzaileetako beste hiruarekin batera, bere jatorrizko alderdia utzi zuen asteartean Juan Cruz Alliren urratsak segitzeko. Del Castillo, Andres Basterra eta Juan Jose Manero CDN alderdi berrian sartu dira dagoeneko. Javier Chorrut Iruñeko alkate ohiak, berriz, ez du behin-betiko erabakia hartu oraindik. Jesus Aizpun UPNko lehendakaria zeharo atsegabetuta agertu zen bere aspaldiko adiskideei agur esatean, nahiz eta historiko hauek azkenaldian erabat baztertuak egon diren alderdi barruan. Agian horregatik aldatu dute alderdiz, ea oraingoan txokoren bat eskaintzen dieten. Dirudienez, UPNko historikoak bezala ibiltzea baino gogokoagoa dute CDNko 'gazteria' izatea.



**Maite Zarranz**  
Eskiatzailea

Hababost urte besterik ez ditu baina hiru urte zituenetik eskiatzen du eta kirol honetan dagoeneko hainbat sari irabazi ditu, Nafarroa mailan eta Estatu mailan. Maite Zarranz denboraldi honetan Espainiako txapelduna izan zen *slalom* espezialitatean eta hirugarrena froga nagusian. Era berean, Estatu bigarren postuan geratu zen froga konbinatuan, Candanchun ospatu zena. «Ez nuen espero. Asko entrenatu dut, gogor, baina txapelketan zegoen maila ikusita zaila iruditzen zitzaidan. Oso pozik nago». Ez da gutxiagorako, frogetan parte hartu zuten askok urte osoan entrenatzen ematen baitute Alpeetan, eta Maite Zarranz iruindarrak asteburutan soilik eskiatzen duelako, aipatu Candanchu-ko pistetan.

### AHAZTU GABE!

#### KULTUR EKITALDIK



**Ultzamako Apiril** Kulturaleko programazioaren barruan ekitaldi ugari egingo dira heldu den aste honetan eta hurrengoan. Gaur bertan antzerki obra bat taularatu du Azkoiengo 'La Traperak' taldeak. Zehazki, 'La nona' izeneko antzezlan izanen da, gaueko 10.00etatik aurrera, Larrainzarreko Ikastetxeko jangelan. Bihar larunbata, gaupasa dago antolatua Egan taldearekin, Larrainzarreko pilotalekuan, goizaldeko ordu batetik aurrera. Iganderako 'Jubilatuaren Eguna' dago prestaturik Autzan. Egur-diko hamabietan izanen da meza nagusia, ondoren mus txapelketaren sariak banatuko dira eta amaitzeko Antonio Senar ezkil-joleak exhibizioa egingo du herriko kanpandoretik. Ordubetatik aurrera bazkaria Almandozko Beola jatetxean. Ostiralean, apirilak 28, mintzaldia izanen da Larrainzarreko ikastetxean insumisioari buruz. Hurrengo egunean, berriz, Saioa mendira igoaldia egingo da goizetik Ultzamako Bentatik. Gauez kantaldia dago Imuntzo eta Belokirekin eta Soinuzale Ultzamako akordeoi taldearekin. Igandean herri kiroleko txapelketa goizetik eta amaitzeko, maiatzaren lehen 'Belateko Ama Birjinaren Eguna' ospatuko da.

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

### Iruñea


# Hilariiei buruzko biltzarra

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Pierre Uclaren omenez, datorren astelehenean, apirilak 24, hil honen 28a bitartean, Hilariiei buruzko VI. Nazioarteko Biltzarra izango da Nafarroako Museoa. Biltzarrak irauten duen bitartean, halaber, Nafarroako Museoko fondoko Erdi Aroko hilarien erakusketa egongo da ikusgai museoan bertan. Gaiaren arabera bost multzotan banatutako hogei hilariak osatuko dute aipatu erakusketa. Batzuek hildakoaren lan tresnak, oinatzak, giza irudiak eta apaingarriak agertzen dituzte eta beste batzuek ertzak apainduta dituzte.

Asteleheneko inaugurazio ofizialaren ondoren, asteartean hilariiei buruzko biltzarra zabalduko duen lehen mintzaldia eskainiko du Joan Menchon Besek, goizeko hamarretatik aurrera. Menchon Bes iberiar penintsulan Erdi Aroko eta hilari modernoak ikertzeko metodologiei buruz mintzatuko da. Honen ondoren, beste zazpi txosten aurkeztuko dituzte biltzarrean parte hartzen duten beste hainbeste kidek. Arratsaldean, berriz, Carlos de la Casa Martinezek zabalduko du programazioa. De la Casak iberiar penintsulako hilarien bilakaera aztertuko du.

Asteazkeneko ekitaldien barruan, Carmen Jusue eta Maria Ines Tabar-ek Nafarroako hilariak izango dituzte mintzagai. Arratsaldean, halaber, beste txostenen artean, Antxon Agirre



1.216 hilari daude Nafarroan

Sorondok berea aurkeztuko du, hilariiei buruzko ikuspegi antropologikoa aztertzen duena, hain zuzen ere. Osteguna, berriz, txango eguna izango da eta Iruñean bilduko diren 60 bat biltzar-kide Leire, Xabier eta Zangozara

joango dira bertako hilariak ezagutzeko asmoz.

Biltzarra ostiralean bukatuko da, Jose Ramon Lopez eta Joan Menchon Besek aurkeztuko duten txostenarekin. Pierre Uclak hilariiei buruz egin zuen

hiztegi eleaniztuna aztertuko dute.

### ORAIN HAMASEI URTE

1979. urtean, orain dela hamasei urte, egin zen Frantzian hilariiei buruzko lehen biltzarra. 1987koa, berriz, Donostian egin zen Eusko Ikaskuntzak antolatuta. Datorren astean Iruñean egingo dena, 1993. urtean hasi ziren prestatzen eta, erran bezala, hilarien ikerketa ogibide bihurtu zuen Pierre Uclaren omenez izango da. 1910. urtean jaio zen eta iaz, auto-istripuan, Parisen hil zen. Euskal Herriko eta beste hainbat lekutako hilariak katalogatu zituen. Hiztegi eleaniztuna ere berak egin zuen.

Nafarroan hilari asko egotea biltzarra Iruñean egiteko arrazoiatariko bat izan da, antolatzailerak azaldu dutenez. Izan ere, iaz bildutako datuen arabera, 1.216 hilari daude Nafarroan. Nafarroa Beherean, berriz, 1979. urtera arte 544 hilari zeuden.

Hilariiei buruzko VI. Nazioarteko Biltzarrean aurrekontua lau milioi t'erdi ingurukoa izan da eta Euskal Herriko, Frantziako, Portugalgo eta beste hainbat herrialdeetako 60 biltzar-kide inguruk hartuko dute parte.

Bestalde, Javier Zubiaur Kulturako zuzendari nagusiak biltzarrean aurkezpenean adierazi zuenez, Xabierren dagoen hilari multzoa babesteko neurriak hartuko dituzte.



Denetarik bilduko da.

## Merkatu txikia jubilatuentzat

IRUÑEA

Mendillorriko Auzo Elkarteak merkatu txiki bat egingo du datorren ekainaren 4an, bertako jubilatuentzat ekitaldiak prestatu ahal izateko dirua biltzeko asmoz. Hori dela eta, Auzo Elkarteak Mendillorriko bizilagun guztien laguntza eskatu du, ahalik eta gauza gehien biltzeko. Altzariak, arropek, jostailuek, liburuak, koadroek, landareek... gauza guztiak izango dute lekua Mendillorriko merkatu txikian eta, erran bezala, lortutako diru guztia Mendillorriko jubilatuentzako ekitaldiak prestatzeko izango da: hitzaldiak, txangoak, ikastaroak eta abar. Merkatu txikia antolatzeaz gain, dirulaguntzak ere eskatu dituzte Mendillorriko Jubilatuen eta Pentsionisten Elkarteak.

Iazko azaroan sortu zen Mendillorriko Jubilatuen eta Pentsionisten Elkarte eta orduz geroztik, ekitaldi ugari burutu dituzte, dantzaldiak eta opera kontzertuak, besteak beste. Honetaz gain, Sadar Osasunako futbol zelaiaren partiduak ikusteko hainbat gonbidapen ere eskuratu dituzte Mendillorriko jubilatuek. Pamplona Telebisioneko estudioetan ere, telebista programa bat nola egiten den barrutik ikusteko aukera izan dute. Mendillorriko jubilatuek, beraz, badakite denbora nola pasatu.

Horrela, aurrerantzean ere hauen gisako beste hainbat ekitaldi burutu ahal izateko antolatu dute merkatu txikia Mendillorriko bizilagunek. Bertan, gauza bitxiak erosteko aukera izango dute bizilagun guztiak eta, ziurtenik, prezio onetan lortzeko aukera ere izango dute. Jubilatuen aldeko merkatu honetara dozein gauza eman nahi duenak goizeko hamarretatik eguerdiko ordubata arte izango dute zabalik Amokain kaleko egoitzako ateak. Bestela, 16 15 55 telefonora deitu eta bertan helbidea utzita, etxera joango da norbait bila.

### Donibane-Garazi

## Lizeoko gazteak antzerkilari 'Ezkonduko ditugu' lanarekin

L.F. / DONIBANE-GARAZI

Azken hiru urteetan, Garaziko lizeoko gazteek teatro-ate-lierria muntatu dute eta ikasturte bururatzean urtean zehar landutako antzerkia antzeztzen dute. Ehunka jende bildu zen ostiralean Garaziko Vauban gelan lehen aldikotz euskarazko antzerkia ikusteko. Lizeo berriko ikasleek talde lan baten emaitza eskaini zuten eta proiektu horretan parte hartu Amaia Aire, Mirentxu Biscaichipi, Arantxa Bozon, Iñaki Etxeleku, Elisabeth Etxeberri, Aña Monguillot, Marie Jose Poutzou, Beatrice Sallaberrri eta Aitziber Zugarramurdik.

'Ezkonduko ditugu' antzerkiaren mamia asmatu zuten ikasleek eta Antxon Luku, euskarazko irakasle eta antzerkilari amorratuak testuak idatzi zi-

tuen, sartuz ohizko umore fina eta arina. Ixtorioa Baiona Ttipian hasi da eta lan on bat galdu duen emazte erdi gazte bat karrikan gertatzen da. Iduz kanpoko bizi hori hobeki ezagutzen duen beste EFG Egoitza Finkorik Gabe baten ezagutza egiten du. Donibane-Garazin salgai den ezkontagintza erostea erabakitzen dute eta ondoren gertatuko diren ixtorio guztiak kondatzen dituzte. Ostiraleko emanaldia irriz karkaila aritzeko parada ona izan da, antzerkilari gazte izan arren profesionaltasuna eta trebetasuna erakutsi baitute. Ez da dudarik Luku antzerkian duen esperientzia laguntza paregabea izan dela gazte horientzat. Laguntza beharrezkoa zen, batez ere ikusiz bakoitzaren testuaren luzetasuna. Hats berria ufatu dute gazte horiek Garazin.

### Bera

## Haurrentzako ekintzak Kaxerna taldearen eskutik

JON ABRIL / BERA

OHoko lehen eta 5. maila bitarteko haurrentzat hainbat tailer antolatu ditu Kaxerna aisialdi taldeak, datorren astelehenean, hilak 17, hasita, eta ostirala arte. 'Astelehenean bertan txotxongilo tailerra prestatuko dute, txotxongiloak egin eta antzezteko. Asteartean, musika tailerrean ariko dira haurrak, eta beren musika tresnak egiteaz gain, txalaparta jotzerik ere izango dute. Asteazkenean, mendira irteera egingo dute, gaupasa, eta bertan bazkaldu. Ostegunerako, eskulan tailerra eta paperaren birziklatze tailerra prestatu dute eta, azkenik, ostiralean, sukaldean ibiliko dira ontzi tartean. Goizean 10etan elkartuko dira eta ordu bata arte ariko dira. Haur guztiak bazka-

london hiruretatik bostetara bilduko dira berriro ere. Bertan parte hartu nahi duten ume guztiak ikastolako frontoian agertu beharko dute astelehenean, 1.500 pezetan eskuan dituztela.

Euskara hutsean egingo dira ekintzak, Kaxerna aisialdi taldean ohi den bezala. Haurrekin aritzen den elkarte hau iazko udan sortu zen Berako hiru gazteren ekimenez. Uztailean izandako arrakastaren ondotik, lau eguneko txangoa antolatu zuten eta orain uda aurretik azken ekintza izango dena aurkeztu dute. Udara begira, Bortzietako Euskara eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateekin eta Malerreko Euskara Mankomunitatearekin udalekuak antolatu ditu Gaztelun 6. eta 7. mailakoekin, iazko udaleku irekiekin batera.



Fundazioaren egoitza eta artzain eskola Garraldan paratuko badira ere, ibar osoarendako onuragarriak izango dira neurriok. Argazkian, Abaurregaina.

**J**oan den martxoaren 24an onartu zuen Aezkoako Batzarre Nagusiak garapen egitasmoaren lehen ondorio praktikoa: artzain-eskola eta hiltegi bat egiteko proiektua, hain zuzen ere. Horrekin batera, Pablo Mandazen Fundazioaren oinarriak ere aurkeztu ziren biztanleen aurrean. Duela bi urte hasitako bideari, beraz, jarraipena eman dio Aezkoak, ibarra berpizteko eginahalean.

## Aezkoa, aitzina zaluki

ALBERTO BARANDIARAN / ARIBE

Duela bi urte, Aezkoako Batzarre Nagusiak «ibarra berpizteko» egitasmo nagusia aurkeztu zuenean, «arrandioso» izendatu zuten batzuek, bi mila milioi pezetako aurrekontua eskatzen zuen zerbait «utopia hutsa» zelakoan. Batzarre Nagusian nagusitasun osoz baietza eman zitzaion egitasmoari, eta orain hasia da gauzatzen. Badira funtsezko aldeak ordukoen eta gaur egun entzuten diren argudioen artean, ordea. «Nafarren arteko elkartasuna», «banaketen oreka», «gobernuaren laguntza» eta antzeko proposamenak izan ziren orduan mintzagai. Gaur egun «Bruselatik datozen finantzabideak», «bertakoen ahalegina» eta interesa eta «loturiko akordioak» dira hitzak. «Orain zehaztu ditugu lehentasunak», azaldu du Miguel Angel del Rio Aezkoako Batzarre Nagusiko presidentek, «eta badugu proiektu konkretu bat esku artean. Lehen asmoen zerrenda bat zen, nolabait esateko». Ideia bat errepikatzen da hala orduan nola orain: «Ez dago horrelako proiekturik Pirinio osoan».

Gutxi izanik ere, asko egin delako, bistan denez. Orduko asmo 'utopikoetatik' —industria, komunikazioak, turismoa, abel-

tzaintza eta nekazaritza biltzen zituztenak— zerbait eskuragarria lortu da, eta proiektuak aurrera jarraitzen du, antza. Lehendabizi nekazaritza eta abeltzantzari heldu zaie, arrazoi bistakoengatik: ibarrak berak hor izan du —eta badu oraindik— lan iturria eta horretarako daude finantzabiderik eskuragarrienak.

Hala ere, behigorritik ardira. «Nafarroan antzematen da», dio Del Riok, «badela eskasia ardi-esnearekin, bai Idiazabal bai eta Erronkari jatorri izendapenekoek ere kanpoan erosi behar dutelako esnea. Guk baditugu komunal franko, baditugu zelaiak, eta gure abeltzaintzaren egoerak ere bultzatzen gaitu aldaketa bat

egitera». Hori dela eta, Artzain-Eskola jarriko da martxan luze gabe Garraldan. Horretarako harremanak hasiak ditu Batzarrek Mauleko Eskolarekin, eta erakunde honen aurriskuspentetan sartua dago elkarlan hau. Hasiako asmoa esnea saltzea dake, baina aurrerantzean gazta ere egitea ez da baztertzeko.

## Fundazioa Sastrezurian

A. B. / ARIBE

■ Pablo Mandazen Fundazioa Aezkoako egitasmo orokor hau aurrera eramateko eratu da, eta dagoeneko badu egoitza, Garraldan, Sastrezuria etxean. Uda baino lehen osatu nahi da ofizialki fundazioa, estatutuak ia amaituta daudelako, eta soilik parte hartuko duten erakundeen baieztapen ofiziala falta da. Nolanahi ere, esan daiteke bertan egongo direla Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza, Garraldako Udala, Aezkoako Batzarre Nagusia, Pablo Mandazeneko ordezkari bat, Natur Zientzietako La Salle Fundazioa (FLASA)—Mandazenek Vene-

zuelan sortutako erakundea—, Orreagako Priorra, Donibane-Garaziko sindikatiko ordezkari bat, eta Javier Castroviejo biologoa —ekogarapena arloan aditua—.

Betekizun funtsezkoa izan da Pablo Mandazena. Garraldar honek Venezuelan sortutako erakundeak izugarritzko onespena eskuratu du herrialde hartan, ingurugiroari lotutako garapena bultzatzeko egin lanarengatik, eta aspaldiko asmoa zuen bere jaioterrian ere antzeko zerbait egiteko. Halaber, Aezkoan garbi ikusi zuten ibar osorako funtsezkoa den egitasmo bat ezin dela politikak eragiten dituen aldaketan menpe

egon, eta arrakasta ziurtatzeko beste erakunde baten beharra zegoela. Hori dela eta, Aezkoako Batzarre Nagusiak fundazioaren esku utziko du egitasmoak aurrera eramateko ardurara, baina ez da hori izango ania Gines deritzan gizon honek bultzatutako ideiarekin helburu bakarra. Fundazioaren estatutuetan garbi azaltzen da Aezkoarena ezezik, Nafarroako ekialdeko Pirinioen garapena ere badela helburua, eta, halaber, FLASA erakundearen ordezkari ofiziala izango da Europa, edozein gaitan. Horrekin batera, fundazioak aurrera eramango ditu ingurugiro ezberdinen ikerkuntza zientifikoa.

Horrekin batera, ibar osoko hiltegia eraiki nahi da urte honen amaiera baino lehen. Gaur egun Garraldan dagoenak ez du legediak eskatzen dituen gutxienezkoak betetzen, eta berri bat egingo da, beraz, modernoagoa eta aurreratuagoa. «Guretzat funtsezkoa izango da ez bakarrik legediaren eskakizunak gaintzeko, baina aurrerantzean indarrean paratu nahi ditugun kalitatezko izendapenen kalitate-kontrolak ziurtatzeko ere». Hiltegi honek eskatuko du hasierako egitasmo honen inbertsiorik handienak —ehun milioi pezeta inguru—, baina dirulaguntza % 55ekoa izango da.

Horretaz gain, eraikuntza eta zaharberritzeko ofizioen etxea egin nahi da, eta basafruituen bilketaz, transformazioaz eta komertzializazioaz arduratuko litzatekeen zentro bat. Oro har, 1.400 milioi pezetako aurrekontua, eta 120 bat lanpostu, zuzenak zein zeharkakoak. Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, lor litekeen dirulaguntza proiektu osoaren % 60 litzateke.

«Ongi zehaztu behar da kopuru hauek egitasmoa osorik gauzatu gero izango liratekeela benetakoak», azpimarratu du Batzarreko presidentek, «gerta baitaiteke inor ez ausartzea, alegia, horren aldeko apustua inork ez egitea, eta orduan aurrekontua zero izango litzateke».

Lehen baimena, hala ere, lortua dute. Duela urtebete Nafarroako Gobernuarekin hasi ziren harremanak bide onetik joan dira, errekarra gabe, eta Iñigo Nagore Nekazaritza Departamentuko zuzendaria garbi mintzatu zitzaion: «aurrera». Del Riok ere ez die trabarik ikusten zenbakiei. «Jendeak uste du diru gehiegi dela, baina gu ez gara inolako finantzabiderik asmatzen ari. Gaur egun —5B zona dela eta, Bruselatik bultzatzen ari den Leader proiektua dela eta—, bada arlo hauetarako dirua, eta hori aprobetxatu nahi dugu». Zer gertatzen da gainontzeko % 40rekin? «Horri Batzarre Nagusiak eta interesatuta daudenek egin beharko diote aurre, Pablo Mandazen fundazioarekin batera».

Bertakoen betiko sostengua izan den nekazaritza eta abeltzaintzari heldu izanak eragin positiboa izan du atzen artean, gertuago ikusi dutelako asmoa, baina ez da baztertu beste arlotan ere indarra egitea. «Duela bi urte aipatu genituen arlo nagusiak —errepideen hobekuntza, industrialdeak...— ez dira ahaztu. Garbi dago ez dela garai aproposena horretan hasteko, baina horiek ere funtsezkoak izango dira aurrerantzean, jautzia egiten ez badugu gureak egin dutelako». Nolanahi ere, kontuan hartuz aurkeztutako proiektuek lau bat urte beharko dituztela oso-osorik garatzeko, nahikoa lana bada ibarrean. «Esku artean duguna oso garrantzitsua da, erabat alda dezakeelako gure ibilbidea».





**U**rteak joan, urteak jin, teknika sartzen da eguneroko bizian molde desberdinetan. Internet aipatzen denean gizartearen harreman berriak definitzeko, Behorlegiko kaskoan artzainek ura eskas zuten artaldeentzat udan. Duela urte bat, mendiko edanaskak betetzeko eguzki indarra baliatzea pentsatu zuen ameslari batek. Ametsa egia bilakatu da.

## Eguzkia, ura banatzeko artaldeei

LUTXI FOURCADE / BEHORLEGI

'Eguzkia eta ura, menditarren lagun'... Hitz horiek irakur daitezke duela hilabete bat jauntxo batzuek Behorlegiko kaskoan pausatutako harrian, Arroskua lepoan. Harria Ahuzkiko bide bazterrean ikus dezakezu, 1.200 metrotan, eta leloa asmatu zuten ospatzeko mendi xoko honetan egindako izadia eta teknikaren ezteiak. Hots, aspalditik bertako artzainek arazoak zituzten urarekin. «Lehen, artzainek artalde txikiak zituzten eta bakoitzak zuen bere ibilbidea. Urtez urte, artaldeak handitu dira ekoizpena gero eta haundiago egiteko baina abereek ez baitituzte mugak ezagutzen ura aurkitzeko eta edateko, arazoak hasi dira artzainen artean». Michel Gachen, proiektuaren teknikaria, mintzo da horrela. Arazoa aspalditik pausatu zuten haraneko sindikatuak eta 1984an lehen ideiak bota zituen Gachenek, hiru aitzira artifizialen proiektua aipatuz. Biltegi boni esker, leku anitzetan jarriko diren edanaskak betetzen ahalko ziren.

Michel Gachenek bide luzea egin du eguzki indarrak axolatzeko baina lehen eta bere erabilpenaren hedatzea helburutzat finkatu du azken urte honetan. Duela 42 urte sortu zen Landibarren, Nafarroa Behereko herri txikian, gurasoekin Euskal Herria utzi baino lehen. Munduko itsaso gehienak zeharkatu ditu, itsas merkataritzan lanean ari zelarik, itsasontzien elektrizitatea zainduz. Behorlegiko proiektua gauzatzeko zailtasun franko baitziren, beste ideia bat ukan zuen Gachenek. Bi urte biltegi eratzeko asmoa zeukan eta eguzki indarrari esker ibiliko zen ponpak ura eramanez zuen edanaskaraino. «Orai arte gu joaten ginen ureraino baina gaur egun ura etorri datorkigu», zioen poztasunez beterik Gachenek. Bi biltegi eratu dituzte, bakoitzak 130.000 ur litro atxikitzeko, bonbatik 500 metrotan eta 120 metroko apaltzearekin. Bonbatik abiatzen dira bi adar nagusi ura

banatzeko 15 kaiolar eta 10 bat edanasketan. Hamar kilometro hodi lurperatu dute ura emateko guztiei: gizaki zein aberei.

Kolektibitate publikoek 2.5 milioi libera ordaindu dute sistema berria eta joan den udatik erabilgarria da, nahiz eta aurrerentzako bukatu duten proiektua. Hala ere, udan izaten diren 150 behi, 50 zaldi eta 4.000 ardiek parada ukan dute edanaska estreinatzen eta ur tokiak aurkitzeko zailtasunik gabe. Bi fasetan burutu dute proiektua; lehendabizikoan 1.2 milioiko Europa eta departamenduko diru laguntzarekin, eta ondoren sindikatuaren

877.000 liberekin. Erabiltzen den ponpa Europako haundiena da, 4 kilowateko indarra baitu. Eguzki taulak Arroskuako lepotik 100 metro jarri dituzte, ahal bezainbat indar biltzeko. 40 modulu jarri dituzte, 52na kilowatt indarrekoak.


Obrak luzeak izan direla azpimarratu zuen Gachenek, eta lanak gogorak izan direla. «Harri franko aurkitu dugu hautatu gunden tokian eta 300 kilo lehergai baliatu ditugu biltegiak eratzeko», gehitu zuen. Baina tresneria jasankorrek baliatzen dituzte, zeropeko 80 gradutik 80 gradurainoko tenperaturak jasan ditzaketenek. «Stoketan 130 metro kubiko atxikitzen ditugu, eta eguneroko beharra 6 metrokoa da», azpimarratu zuen.

Joan den udan, sistema erabili zuten lehen aldikotz eta gauzak ongi iragan zirenez poztu ziren. «Biltegia betetzen zenean, lehen bainua hartu genuen Behorlegiko kaskoan, behi eta ardi batzuen aurrean», irriñoarekin oroitu zen Gachenek. Antolakuntza ikusiz, Garaziko beste artzainek antzeko proiektuaren asmoa adierazi zuten eta datozen hilabetetan obrak abiatuko dituzte Elurreko lepoan. Azpimarratu behar da Garaziko mendietan eguzki indarra aspalditik ezagutzen dutela, elektrizitatea sartu baita kaiolar gehienetan duela hamar bat urte. «Jadanik 130 instalazio egin ditugu hemengo mendietan eta ez da dudarik mugimendua hedatuko dela datozen urteetan».



Behorlegiko kaskoan paratu den ponpari esker inguruko abereek ura izanen dute udan.

LUTXI FOURCADE.



Michel Gachen teknikaria arduratu da eguzki energia aprobetxatzeko proiektuaz.

LUTXI FOURCADE

## Gero eta erabiliagoa

L. F. / BEHORLEGI

■ Michel Gachenek itsasontzietan ari zela ukan zuen eguzki indarrarekin lehen harremana, baina egun batez itsasontziak utzi zituen herrira itzultzeko eta bere lantegia eratzeko. Hots, duela 13 urte hasi zen eguzki indarraren erabilpena aztertzen, eta herriz herri edo mendiz mendiri ibili zen frogatzeko eguzkia benetako altxorra zela toki anitzetan bizia hobetzeko. Mendiko etxoletan dozenaka artzain biltzen zituen, argazkiak, irudiak edo tresneriak baliatuz erakusteko eta frogatzeko sistemaren erabilpena erraza zela.

«Kolektibitate publikoekin lanean ari gara batez ere, sistema nahiko garestia baita partikularrentzat», azpimarratu duenez. Eta hola, emeki bada emeki,

elektrizitatea sartu da Zuberoako eta Nafarroa Behereko leku anitzetan. Erabilpen franko baditu sistemak. Egun batez, Accousteko sindikatuak Gacheni eskatu zion sistema asma zezala telefonoa jartzeko haranean. «Bertako artzainen bakartasunari aurre egiteko, telefonoa jarri dugu eta lasaiago bizitzen dira, baitakite lokarria atxikitzen dutela gizartearekin». Arrakasta ikusiz, antzeko sistema jarri dute Oztibarreko mendietan. Oro har, hasieratik 763 instalazio egin ditu Gachenek hiru departamendu desberdinetan.

Lyongo Techno Solar, eguzki sistema muntatzaileen elkartearen lehendakariorde hautatu zuten; 18 profesionalak osatzen dute elkarte eta elkarrekin lanean ari dira 14 frantses, espainol bat, belgikar bat, suitzar bat eta

italiar bat. «Europar kontratuak egiteko egitura egokiena hautatu dugu, proiektu batzuk elkarrekin burutzen baitituzte herri batzuek», adierazi zuen.

Lantegia sortu denetik, eguzki indarra toki anitzetan sartu da eta bost lanpostu sortu ditu. Kolektibitate publiko batzuekin egiten du lan, baina partikular batzuekin ere kontratuak baditu, «ekologi arrazoiengatik beste elektrizitate motak baztertzen baitituzte gaur egun, garestiagoa izan arren eguzki indarra». Antolakuntzak Nafarroan ere egin ditu, batez ere artzainen etxoletan. Gachen 'salbatzailetzat' ere jo dute etxe batzuetan, elektrizitatea sartu duelako lehen aldikotz. Datorren lan garantzitsua Landesetan egingen du, lantegi bateko ur garbiketa sistema instalatuko baitu.

## «Nere baitan erdia kixote da»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Nafarroako lehen historia idatzia gurean da dagoeneko, Siloseko Santo Domingoko (Burgos) monastegian mendeetan zehar ahaztuta egon ondoren. Segundo Otazu 'Mintzoak' Iruñeko argitartekoak aurkitu zuen bertan, eta hona ekarri du, adituek azter dezaten eta ondoren argitaratzeko. Aita Moretena baino berrogeitamar urte zaharra goa, garrantzi handia daukala

bazegoela, Kanpionen eta Iturralde y Suiten hainbat idazkietan aipatzen delako. Baina ez nekien non zegoen, eta ibili naiz hamaika liburategietan, eta ez zegoen modurik. Hamar bat urte eman ditut honen atzean, eta, hondarrean, aurkitzeko modua nahiko bitxia izan zen. Egun batean Leirera joan nintzen, liburu bat argitaratu nuelako, eta hango priorrekin hitz eginez, atera zen gaia. Berak 80 urte inguru ditu, eta gogoratzen zen txikitan,

tokian. Orain arte esaten zuten horiek nazionalisten asmakizunak zirela, ba, tori, hor duzue dokumentua: 1632koa eta tuterar batek egina.

**EGUNKARIA.**— Badira dokumentu honetan euskal testuen aipamenak?

**OTAZU.**— Ez, baina oso garrantzitsua iruditzen zait Nafarroaz mintzatzen delarik Gipuzkoa eta Bizkaia ere barruan sartzen duela. Euskal Herria osoa ikusten du euskal mundu gisa. Halaber, iruditzen zait

mendu kultural bat. Uste duzu, batzuek esaten duten moduan, garai hartan euskal liburua asko argitaratu zirela, nahiz eta oraindik aurkitu ez?

**OTAZU.**— Nere ustetan, Nafarroako Errenaisantza munta handikoa izan zen, Oriak azaldu duen bezala, eta jakina badirela desagertuak dauden liburu asko. Desagertuak baino, ezkutatuak. Ez apropos, baino herri honek duen kultura eza handi horrek ezkutatuta. Adibidez, hor dago euskarazko lehen katixima, 1502. urtekoa, eta horren atzetik eman dut denbora asko, eta badauzkat pista onak: aurkituko dut. Hau izango litzateke euskarazko lehen liburua, baina ez nintzateke harrizko beste batzuk zaharragoak aurkituko bagenu.

**EGUNKARIA.**— Non daude 'ezkutatuta' testu zahar hauek gehienak?

**OTAZU.**— Gazteluan. Orain bilatzen ari naiz han —eta badakit non dauden— Nafarroako ureztapenen estatutuak. Eta badirudi Valentiakoak baino zaharragoak direla. Ez da ahaztu behar Valentiakoek dutela mundu osoan fama... Eta badira beste milaka, monastegietan, artxibo ofizialetan..., baina bilatu behar dira, hara joan behar da.

**EGUNKARIA.**— Zergatik Gazteluan?

**OTAZU.**— Gazteluak menderatu gintuen, zapaldu, eta norbaitek sugearen lepoa zapaltzen duenean, sugeak askatu egiten du ahoan zeramana. Gerra guztietan konkistatzaileek zerbait eraman dute.

**EGUNKARIA.**— Satisfakzio izugarria hartuko duzu horrelakoak aurkitzen dituzunean...

**OTAZU.**— Nik negar egin nuen Nafarroako Historia hau aurkitu nuenean, euskal dokumentuak aurkitzen ditudanean emozioz betetzen naizelako. Nere baitan erdia kixote eta erdia enpresaria dut, eta ezin dut baztertu kixote parte hori. Orain badut izugarriko ilusioa katixima hori aurkitzeko, eta ia aurkituta ditudan estatutu horiek topatzeko, eta beste hainbeste gauza...

## Segundo Otazu


ARGITARATZAILEA



SOSLATA

### Leizarragaren Biblia, «merkea»

Leizarragaren Bibliarekin Londresen egin zen enkantean ez zela lehiatu ziurtatzen du, nahiz eta gogorik izan, dirutza handia izango zela bazekielako. Hala ere, pozik askoa azaltzen da azkenean Nafarroara heldu delako. «Alli izan baldin bada ekarri duena, gozada bat izan da. Zertaz kexatu ordaindu denaz: Zenbat diru ordaindu da autobidean, eta inor ez da kexatu? Biblia monumentu bat da, eta iruditu zait merkea eta guzti». Berari 40 milioi pezetako aseguru bat jarri diote 'Nafarroako Historia' idazkia Silosetik ateratzeagatik, eta gehiegizkoa baldin baderitzo ere —«orain arte aparteko garrantzia ez diote eman»—, onartu du.



«Euskal testu zahar asko ezkutatuta daude», Otazuk dioenez.

azpimarratu dute aztertzen ari diren irakasleek, «aurreratzen duelako mende erdia Nafarroako jaiotze historiografikoa». Ez da hori, baina, Otazuk eskuartearen duen 'aurkituntza' bakarra. Nebrijaren —Espainiako lehen gramatikaren egilearen— garaiko gramatika nafarra ere topatu du Savonan (Italia), eta bi idazki funtsezkotzat ditu ikusmiran: euskarazko lehen katixima —lehen euskal testu idatzia izango zena—, eta Nafarroako ureztapenen estatutuak.

**EGUNKARIA.**— Liburutegietako jorraztaile amorratuaren antzera egingo zenuen Nafarroako Historia hau aurkitzeko...

**SEGUNDO OTAZU.**— Nik banekien aspaldidanik lan hau

Santo Domingo de Silos-eko liburutegia berrosatzen ari zirela, hango mutikoei esan zietela laguntzeko. Eta bera han egonik, esan zidan Nafarroako Historia bat ikusi zuela. Orduan piztu zitzaizkidan argi guztiak eta egun horretan bertan joan nintzen Silosera. Hurrengo goizean aurkitu nuen dokumentua.

**EGUNKARIA.**— Gasteizko irakasle bat aztertzen ari da euskal testuen inguruko guztia. Asko ba al da?

**OTAZU.**— Esate baterako, bitxikeri gisa, izkribu honetan azaltzen da 'Azkoien', Peraltairen partez, azaltzen da 'Azkarrena', eta 'Mourroia' Tuteraren partez, eta 'Susaeta', Zangozaren partez, eta 'Erriberri', eta 'Tubal' Tafallaren

beldur dela esaten ari denaz, arazoak izan zitzaizkela, eta akaso horregatik ez zioten argitaratu.

**EGUNKARIA.**— Bestalde, Savonan (Italia) aurkitu duzu Jose Masparrautaren gramatika bat. Zer garrantzia dauka?

**OTAZU.**— 1492koa da, hau da, Nebrijaren garaikoa, eta horrek berehala pentsarazi zidan: 'kontxo, ba erresuma hau ez zen jendeak uste duen bezain txikia!'. Nebrija monumentu nazionala da Espainian, eta nafar hau ahaztuta dago. Gramatika itzel bat egin zuen, baina inork ez dio garrantzirik ematen, nahiz eta esan daitekeen Nafarroan argitaratu zen lehendabiziko liburua dela.

**EGUNKARIA.**— Honek erakusten du bazegoela mugit

## NOSKI JATOR

